

# Kontratazio baldintzak

## 1. ONARPENA

Hezten elkartearen [www.hezten.eus](http://www.hezten.eus) atarian erosketa egin ahal izateko, *Erosketa eskaeran* azaltzen den **onartu** botoia sakatu beharko da erosketa egin baino lehen. Onartu ondoren, erabiltzailea Hezten-en *Bezeroa* izango da, Kontratazio-Baldintza Orokor hauetan zehazten den bezala. Hezten-ek kontratu honen ondoren eskaintitako beste edozein produktuk beste kontratazio bat beharko du.

## 2. PREZIOAK

Produktu bakoitzari dagokion webguneko prezioa eskaera egiten den unekoa da, eta guztiek BEZa gehitua dute (Balio Erantsiaren Zerga). Eskaintza bereziak ondo adierazita eta identifikatuta egongo dira: aurreko prezioa eta eskaintzaren prezioa modu egokian azalduko dira. Bidalketa gastuak kontuan hartu dira produktuaren salneurrian. Produktuaren bidalketa prozesua ez da abian jarriko ordainketa egin arte. Bezeroak adierazitako helbidera produktua heltzeko epea gehienez astebetekoa izango da, erosketa egiten den unetik hasita; dena dela. Hezten-en jardueratik at dauden gertaerek eragin dezakete entrega epea luzatzea. Produktua itzultzeko onartuko den onartzeko baldintza bakarra honako da: produktuak akatsen bat izatea.

## 3. DATU ETA KOMUNIKAZIO PERTSONALAK

Abenduaren 13ko 15/99ko Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, Bezeroari jakinarazten zaio, produktua erosten duenean ematen dituen datuak Hezten-en fitxategian gordeko direla harreman komertziala errazteko; eta nobedadeen, produktuen eta zerbitzuen berri emateko, idatzizko zein bide elektronikoko erabilita. Bezeroak komunikazio komertzialak jasotzeko baimena ken dezake edozein unetan, *idazkaritza@hezten.eus* helbidera mezua bidalita. Enpresa horien jarduerak arlo editorialekoak, hezkuntzakoak, kulturakoak eta urruneko salmentakoak dira. Erosketa egiten duen unetik 30 egunera bere mezurik jaso ezean, Bezeroak baimena ematen duela ulertuko da. Bukatzeko, jakinarazten du Bezeroak datuak sartzeko, aldatzeko eta bertan behera uzteko eskubidea duela. Horretarako, ondorengo bi helbide hauetakoren batera idatzi beharko du: Hezten elkarte, Mundaiz Bidea 8 — 2ºE, 20.012 Donostia (Gipuzkoa) edo *idazkaritza@hezten.eus*. Bezeroaren datuak gordetzearen helburua ondorengoa da: gurekiko Bezeroak duen kontratuzko harremana kudeatzea; jarduera komertzialak eta publizitarioak egitea SMSen edo mezu elektronikoen bidez. Bezeroak iragarkirik jaso nahi ez baldin badu, bere kontuan sartu beharko du eta Newsletter edo informazioak atala desaktibatu.

## 4. JABETZA INDUSTRIALA ETA INTELEKTUALA

*www.hezten.eus* atarian azaltzen diren lanen, marken, logoen edo babesaren behar duten beste edozein jabetza intelektual eta industrialaren eskubideak Hezten elkartearenak bakarrik dira, beste jabetzarik zehazten ez den bitartean. Lanen, marken, logoen, etab.en erreproduzio, banaketa, komertzializazio edo aldaketa ez onartuak Hezten elkartearen jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideen urraketa dira, eta ekintza judizialak garatu ahal izango ditu bere eskubideak babesteko. Halaber, webgunearen bidez Bezeroak lor dezakeen informazioa ere babestua egon daiteke, jabetza industrialaren, intelektualaren edo bestelakoaren eskubideen bidez. Hezten ez da bezeroak egin ditzakeen urraketez arduratuko.

## **5. LEGEAK**

Kontratu honi aplikatuko zaion legea Lege Espainola da. Donostiako epaitegi eta auzitegiek izango dute sortutako arazo edo gatazka ebazteko jurisdikzioa eta eskumena.